

GREMIO  
DE EDITORES  
DE EUSKADI



EUSKADIKO  
EDITOREEN  
ELKARTEA

**CONECTA**   
RESEARCH & CONSULTING · BUSINESS SOLUTIONS

# **EUSKARAZKO ARGITALPENARI BURUZKO VIII. TXOSTENA (2012)**

Norentzat egina:

Gremio de Editores de Euskadi  
Euskadiko Editoreen Elkarte

Babeslea:



KULTURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA

## **EDUKIEN AURKIBIDEA**

<b>Sarrera .....</b>	<b>6</b>
<b>Metodologia.....</b>	<b>7</b>
EREMUA .....	7
INFORMAZIOAREN BILKETA .....	7
ESKURATUTAKO INFORMAZIOAREN AURKEZPENA .....	7
AZALPENAK.....	8
AZTERKETAREN FITXA TEKNIKOA .....	9
<b>Argitalpen Sektorea, Oro Har.....</b>	<b>10</b>
<b>Argitalpen Pribatua Euskaraz .....</b>	<b>12</b>
ARGITALPEN PRODUKZIOA .....	12
Euskaraz argitaratutako izenburuen kopuru tarteak.....	14
Euskarazko argitalpenak guztizkoarekin alderatuta.....	15
Argitalpen produkzioa, sailen arabera .....	16
Euskaraz argitaratutako izenburuak, sailen arabera.....	17
Euskaraz argitaratutako aleak, sailen arabera.....	21
Batez besteko argitaraldia euskaraz, sailen arabera.....	25
KATALOGOKO IZENBURUAK .....	27
Katalogoko izenburuak, sailen arabera.....	27
<b>Merkaturatzea .....</b>	<b>31</b>
2012KO FAKTURAZIOA .....	31
Fakturazioaren zenbatekoa, sailen arabera .....	31
Fakturazioa sailez sail, jatorriaren arabera .....	33
LIBURUAK MERKATURATZEKO BIDEAK .....	36
Batez besteko prezioak eta saldutako aleak.....	40
<b>Unibertsitateaz Kanpoko Testuak, Euskaraz .....</b>	<b>42</b>
<b>Beste Datu Batzuk .....</b>	<b>51</b>
ENPLEGUA .....	51
EGILE ESKUBIDEAK .....	52
<b>Argitalpen Publikoa Euskaraz .....</b>	<b>53</b>
<b>Laburpena .....</b>	<b>55</b>
SAILEN ARABERAKO BANAKETARI BURUZ AIPATU BEHARREKO ALDERDIAK.....	58
ZEHAZTAPEN METODOLOGIKOAK .....	61

## **TAULEN AURKIBIDEA**

1. TAULA.- UNIBERTSOA ETA LAGINA .....	9
2. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATU ZUTEN ARGITALETXEAK .....	10
3. TAULA.- 2012KO EUSKARAZKO ARGITALPENARI BURUZKO DATU OROKORRAK .....	11
4. TAULA.- EUSKARAZKO ARGITALPENARI BURUZKO DATU OROKORRAK .....	12
5. TAULA.- ARGITARATUTAKO ALEEN, ARGITARATUTAKO IZENBURUEN ETA BATEZ BESTEKO ARGITARALDIAREN BILAKAERA (2008-2012). 2011. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA .....	13
6. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUAK .....	14
7. TAULA.- ARGITALETXE KOPURUA, GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUEN EHUNEKOAREN ARABERA. IPAR EUSKAL HERRIA KONTUAN HARTU GABE .....	15
8.. TAULA.- EUSKARAZKO IZENBURUEN ARGITALPENA, SAILEN ARABERA, 2012AN. ARGITALETXE PRIBATUAK .....	17
9. TAULA. IZENBURUAK, SAILEN ARABERA. 2008-2012 BILAKAERA. 2011. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA .....	20
10. TAULA.- 2012AN EUSKARAZ EKOITZITAKO ALEAK, SAILEN ARABERA (MILAKOTAN). ARGITALETXE PRIBATUAK .....	21
11. TAULA.- ALEAK, SAILEN ARABERA. 2008-2012 BILAKAERA. 2011. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA .....	24
12. TAULA.- BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA EUSKARAZ, SAILEN ARABERA, 2012AN. ARGITALETXE PRIBATUAK .....	25
13. TAULA.- BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA, SAILEN ARABERA. BILAKAERA. 2011. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA .....	26
14. TAULA.- KATALOGOKO IZENBURUAK EUSKARAZ, 2012AN. ARGITALETXE PRIBATUAK ..	27
15. TAULA.- KATALOGOKO EUSKARAZKO IZENBURUAK, SAILEN ARABERA, 2012AN. ARGITALETXE PRIBATUAK .....	28
16. TAULA. IZENBURU BIZIAK, SAILEN ARABERA. 2008-2012 BILAKAERA. 2011. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA .....	30
17. TAULA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2012AN. ARGITALETXE PRIBATUAK .....	31
18. TAULA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2012AN, SAILEN ARABERA. ARGITALETXE PRIBATUAK .....	31
19. TAULA.- FAKTURAZIOA, SAILEN ARABERA. 2008-2012 BILAKAERA. 2011. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA .....	34
20. TAULA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2012AN, MERKATURATZE BIDEEN ARABERA. ARGITALETXE PRIBATUAK .....	36
21. TAULA.- FAKTURAZIOA, MERKATURATZE BIDEEN ARABERA. 2008-2012 BILAKAERA. 2011. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA .....	38
22. TAULA.- SALDUTAKO ALEAK. BILAKAERA. 2011. URTEAREKIKO ALDAKUNTZAA .....	40
23. TAULA.- ARGITARATUTAKO ALEEN, SALDUTAKO ALEEN ETA FAKTURAZIOAREN ARTEKO ERLAZIOA .....	40
24. TAULA.- EAE, NFE, IPAR EH ETA BESTE AUTONOMIA ERKIDEGO BATZUEN PARTE HARTZEA, HAINBAT MAGNITUDETAN .....	41
25. TAULA.- 2012AN EUSKARAZ ARGITARATUTAKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IZENBURUAK .....	42

26. TAULA.- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO IZENBURUAK. 2008-2012 BILAKAERA. 2011. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA .....	42
27. TAULA.- 2012AN ARGITARATUTAKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO TESTUEN ALEAK (MILAKOTAN) .....	43
28. TAULA.- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO ALEAK (X 1.000). 2008-2012 BILAKAERA. 2011. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA .....	44
29. TAULA.- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO TESTUEN BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA 2012AN .....	45
30. TAULA.- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO TESTUEN BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA. 2008-2012 BILAKAERA. 2011. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA .....	45
31. TAULA.- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO TESTUEN IZENBURU BIZIAK 2012AN .....	46
32. TAULA.- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO TESTUEN IZENBURU BIZIAK. 2008-2012 BILAKAERA. 2011. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA.....	47
33. TAULA.- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO TESTUEN FAKTURAZIOA 2012AN	48
34. TAULA.- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO TESTUEN FAKTURAZIOA. 2008-2012 BILAKAERA. 2011. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA .....	49
35. TAULA. NOMINAPEKO LANGILEEN KOPURUA. ENPRESA PRIBATUAK.....	51
36. TAULA.- ESKUBIDEAK EROSTEKO EGINDAKO ORDAINKETEN ESTIMAZIOA.....	52
37. TAULA.- ERAKUNDE PUBLIKOEN ARGITALPENEN BALIOEN BANAKETA, SAILEN ARABERA	54
38. TAULA.- LORTUTAKO BALIOEN BANAKETA, ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA. BALIO ABSOLUTUAK.....	55
39. TAULA.- LORTUTAKO BALIOEN BANAKETA, ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA. % BERTIKALAK .....	55
40. TAULA.- EUSKARAZKO ARGITALPENAREN RATIO NAGUSIAK, ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA.....	56
41. TAULA.- EUSKARAZKO LIBURUEN ARGITALPENAREN ETA FAKTURAZIOAREN DATU NAGUSIAK, SAILEN ARABERA. ARGITALETXE PRIBATUAK .....	57
42. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUEN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN ARGITARATUTAKO IZENBURUEN DATUEN ARTEKO KONPARAZIOA, SAILEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK).....	58
43. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATUTAKO ALEEN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN ARGITARATUTAKO ALEEN DATUEN ARTEKO KONPARAZIOA, SAILEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK).....	59
44. TAULA.- EUSKARAZKO ARGITALPEN BIZIEN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN ARGITARATUTAKOEN DATUEN ARTEKO KONPARAZIOA, SAILEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK) .....	59
45. TAULA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN NAHIZ FRANTZIAN LORTUTAKOAREN DATUEN ARTEKO KONPARAZIOA, SAILEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK) .....	59
46. TAULA.- HAUR ETA GAZTE LITERATURA ETA UNIBERTSITATEAZ KANPOKO TESTUAK SAILEN EHUNEKOAK, HAINBAT HIZKUNTZATAN, AZTERTUTAKO MAGNITUDEEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK) .....	60

## **GRAFIKOEN AURKIBIDEA**

<b>I. GRAFIKOA.- ARGITALETXEEN TIPOLOGIA.....</b>	<b>10</b>
2. GRAFIKOA.- ARGITALETXEEN EHUNEKOA, GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA EUSKARAZ ARGITARATUTAKO LANEN ARABERA.....	15
3. GRAFIKOA.- SAIL BAKOITZEKO EUSKARAZKO IZENBURUEN BANAKETA, ARGITALETXE PRIBATUETAN, JATORRIAREN ARABERA (%-TAN) .....	19
4. GRAFIKOA.- SAIL BAKOITZEAN EUSKARAZ ARGITARATUTAKO ALEAK, ARGITALETXE PRIBATUETAN, JATORRIAREN ARABERA (%-TAN) .....	23
5. GRAFIKOA.- KATALOGOKO EUSKARAZKO IZENBURUEN BANAKETA SAILEN ARABERA, ARGITALETXE PRIBATUETAN. JATORRIAREN ARABERA (%-TAN).....	29
6. GRAFIKOA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN BANAKETA, SAILEN ARABERA, ARGITALETXE PRIBATUETAN (%-TAN).....	33
7. GRAFIKOA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN BILAKAERA. OSOA ETA SAILEN ARABERA (2008-2012).....	35
8. GRAFIKOA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN BANAKETA, MERKATURATZE BIDEEN ARABERA, ARGITALETXE PRIBATUETAN (%-TAN) .....	37
9. GRAFIKOA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN BILAKAERA. OSOA ETA MERKATURATZE BIDEEN ARABERA (2008-2012) .....	39
10. GRAFIKOA.- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO TESTUEN FAKTURAZIOAREN BILAKAERA. OSOA ETA SAILEN ARABERA (2008-2012) ....	50
11. GRAFIKOA.- LORTUTAKO BALIOAK, ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA. (% BERTIKALAK).....	56
12. GRAFIKOA.- HAUR ETA GAZTE LITERATURA ETA UNIBERTSITATEAZ KANPOKO TESTUAK SAILEN ARGITALPENA ETA FAKTURAZIOA, AZTERTUTAKO HIZKUNTZETAN (%-TAN) .....	60

---

## **SARRERA**

Txosten hau euskarazko argitalpenei buruzko zortzigarrena da, 2012. urteari dagokiona, eta Conecta Research & Consulting enpresak egin du, Euskadiko Editoreen Elkarteak eskatuta.

Txosten hau prestatzeko azterketak euskarazko liburuen produkzioari, eskaintzari eta fakturazioari buruzko datu guztiak jasotzen ditu, lurralde osoa aintzat hartuta. Hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Erkidegoko eta Frantziako estatuko (Ipar Euskal Herriko) produkzioa biltzen ditu. Horrez gainera, badira hainbat argitaletxe egoitza lurralde horietatik kanpo duten arren euskarazko lanak argitaratzen dituztenak, eta horiek ere kontuan hartzen ditu.

Bestalde, euskarazko argitalpenak plazaratzen dituzten Administrazio Publikoko erakundeen eta haren mendeko entitateen datuak ere jasota datoz azterketan.

Azkenik, esker ona adierazi nahi diegu, eman diguten laguntzagatik, Euskadiko Editoreen Elkarteari, Conecta enpresak bidalitako galdeketari erantzun dioten enpresei eta Espainiako Editoreen Elkartearen Federazioari, horiei esker egin ahal izan baitugu ikerlan hau.

## METODOLOGIA

### EREMUA

Ikerketa honen azterketa eremua **euskarazko liburuaren argitalpena da**, eta honako enpresa edo erakunde mota hauek hartu ditugu kontuan ikerketa egiteko:

- Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) argitaletxe pribatuak. Elkartearen eta fundazioen argitalpen zerbitzuak ere sartu ditugu kategorian honen barruan.
- Nafarroako Foru Erkidegoko (NFE) argitaletxe pribatuak.
- Ipar Euskal Herriko argitaletxeak (Ipar EH).
- Beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxeak (Beste AE batzuk).
- Erakunde publikoak (EP).

Horiek guztiak 2012. urtean argitalpenaren eremuan barne merkatuan jardun zuten argitaletxeak, enpresak edo erakundeak dira.

### INFORMAZIOAREN BILKETA

Azterlanean islatuta dagoen informazioa zenbait iturritatik jaso dugu:

- Euskadiko enpresa pribatuak. Horiei buruzko informazioa 2012ko Euskal Autonomia Erkidegoko liburuaren barne merkataritzaren txostenean bilduta dago.
- Euskal Herritik kanpoko argitalpen enpresa pribatuek betetako galdetegi egituratu bat, posta elektronikoz igorria.
- Erakunde publikoei buruzko informazioa biltzeko telefono bidezko galdeketa bat.
- ISBN datu basea. Hortik atera ditugu euskarazko argitalpenari buruzko zenbaki batzuk.

### ESKURATUTAKO INFORMAZIOAREN AURKEZPENA

Txosten honetan, hasteko, euskarazko argitalpenei buruzko datu orokorrak emango ditugu aditzera: eragile argitaratzaileei eta argitaratutako izenburuei buruzkoak, hain zuzen. Ondoren, argitalpen pribatuari buruzko datuak zehatz-mehatz aztertuko ditugu (Euskadi, Nafarroa, Ipar Euskal Herria eta gainerako autonomia erkidegoak kontuan hartuta). Euskal Autonomia Erkidegoari buruzko informazioa Euskal Autonomia Erkidegoko liburuaren barne merkataritzari buruzko txostenean dago jasota, baina txosten honetan Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko datuak eta euskarazko lanak argitaratzen dituzten gainerako autonomia erkidegoetako argitaletxe pribatuenak erantsi dizkiogu informazio horri.

---

Ondoren, erakunde publikoen argitalpeni buruzko informazioa eskainiko dugu. Dena dela, kontuan hartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko barne merkataritzaren urteko txostenaren barruan Euskadiko unibertsitate publikoak ere sartzen direla, eta, beraz, horiei buruzko datuak ez dira atal horretan sartuko, argitalpen pribatuen atalean baizik.

## **AZALPENAK**

Azterketan, euskaraz argitaratutako lanei buruzko galderak egin ditugu.

Azterketa honen emaitzetan agertzen diren argitaratutako lanen kopuruaren eta ISBNan (ISBN datu basea edo Liburuaren Espainiar Argitalpenaren Panoramika) 2012an erregistratutako liburuaren kopuruaren artean dauden aldeak erraz azal daitezke, gure ustez: berrargitaratutako lanak dira, argitaratzaile berak argitaratuak, baina aldaketarik izan ez dutenez, ez da horientzat ISBN zenbaki berririk eskatu.



## AZTERKETAREN FITXA TEKNIKOA

**Lanaren egilea:** CONECTA Research & Consulting

**Unibertsoa:** ISBNko datuen arabera, 2012. urtean 97 argitaletzek argitaratu zituzten lanak euskaraz. Ipar Euskal Herriko 6 argitaletxe gehitu behar zaizkie horiei.

**Laginaren tamaina:** EAEko 44 argitaletxe pribatuk erantzun diote galdeketari, hau da, laginaren % 77,2k. Gainerako autonomia erkidegoetatik lortutako erantzunari dagokionez, argitaletxeen % 21,6k erantzun diote galdeketari, eta horien barne daude euskarazko izenburu gehien dituztenak. Horien garrantzia kontuan hartuta, erantzun mailak talde horren euskarazko fakturazioa adierazten duela iruditzen zaigu.

Guztira, argitaletxe pribatuen % 64,8k eta erakunde publikoen % 33,3k erantzun dute. Galdeketari erantzun ez dioten argitaletxeei buruzko informazioa bigarren mailako datuetatik jaso dugu.

### I. TAULA.- UNIBERTSOA ETA LAGINA

	Unibertsoa	Lagina	Laginaren %
EAE	57	44	77,2
NFE	5	3	60,0
Ipar EH	6	6	100,0
Beste AE batzuk	23	6	26,1
<b>Argitaletxe pribatuak, guztira</b>	<b>91</b>	<b>59</b>	<b>64,8</b>
<b>EP</b>	<b>12</b>	<b>4</b>	<b>33,3</b>
<b>Guztira</b>	<b>103</b>	<b>63</b>	<b>61,2</b>

**Galdeketa mota:** egituratua

**Aplikazioa:** norberak betea

**Landa lanerako datak:** 2012ko irailetik urrira bitarte, beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxe pribatuei, argitaletxe publikoei eta Ipar Euskal Herriko argitaletxeei dagokienez. Euskadiko argitaletxe pribatuei buruzko datuak 2012ko otsailaren 28tik irailaren 24ra bitartean lortu genituen.


**Taulan jartzea:** datuak Conecta Research & Consulting enpresan grabatu dira, eta taulan jarri.

## ARGITALPEN SEKTOREA, ORO HAR

Espanian eta Frantzian, 103 enpresak argitaratu zuten lanen bat euskaraz 2012. urtean. Enpresa horien tipologia eta kokapen geografikoa kontuan hartuta, honela banatzen dira:

- Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE)<sup>1</sup> duten 57 argitaletxe pribatu (Euskadiko barne merkataritzari buruzko ikerketaren bitartez aztertu direnak). Talde horretan sartzen dira Euskadiko Editoreen Elkartean bildutako argitaletxeak nahiz horren barruan egon ez arren 2012. urtean argitalpen sektorean jardun zuten erkidego horretako argitaletxeak.
- Nafarroako Foru Erkidegoko (NFE) 5 argitaletxe pribatu.
- Ipar Euskal Herriko probintzietako (Frantzia) 6 argitaletxe pribatu.
- Egoitza nagusia beste autonomia erkidego batean duten 23 argitaletxe pribatu.
- Argitalpen zerbitzua duten 12 erakunde publiko (EP). Horiek izendatzeko *eragile argitaratzaile* hitza erabiltzea komeni da, erakunde horien jardura nagusia ez baita argitalpena.

### I. GRAFIKOA.- ARGITALETXEEN TIPOLOGIA



Euskadin, guztira: % 66

### 2. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATU ZUTEN ARGITALETXEAK

	Argitaletxe pribatuak					EP	% bertikalak, guztira
	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk		
EAE	68	57	0	0	0	11	66,0
NFE	6	2	3	0	0	1	5,8
Ipar EH	6	0	0	6	0	0	5,8
Kataluniako AE	7	0	0	0	7	0	6,8
Madrilgo AE	9	0	0	0	9	0	8,7
Beste AE batzuk	7	0	0	0	7	0	6,8
<b>Guztira</b>	<b>103</b>	<b>59</b>	<b>3</b>	<b>6</b>	<b>23</b>	<b>12</b>	<b>100,0</b>
% horizontalak	100,0	57,3	2,9	5,8	22,3	11,7	

<sup>1</sup> Nafarroako bi argitaletxe Euskadiko Editoreen Elkarteko kide dira, eta haiei buruzko datuak EAEko argitalpenari buruzko informazioan jasota daude. Txosten horretan daude, halaber, hezkuntzako bi erakunde publikoren datuak.

Beste taula honetan zehatzago ikus dezakegu euskarazko lanak argitaratu zituzten mota bakoitzeko argitaletxeen kopurua, baita Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo zer argitaletzek argitaratu zituen euskarazko izenburu gehien ere. Egileen eta editoreen datuak ere agertzen dira, informazio gisa (ez zaizkio emaitza osoari gehitu).

### 3. TAULA.- 2012KO EUSKARAZKO ARGITALPENARI BURUZKO DATU OROKORRAK

Argitaratzaile mota	Probintzia	Eragileak	Izenburuak, guztira	Izenburu gehien dituzten argitaletxeak
<b>Guztira</b>		<b>137</b>	<b>1.985</b>	
<b>Egileak/editoreak, guztira</b>		<b>34</b>	<b>43</b>	
<b>Egileak/editoreak</b>	<b>Araba</b>	<b>3</b>	<b>6</b>	
	<b>Gipuzkoa</b>	<b>19</b>	<b>23</b>	
	<b>Bizkaia</b>	<b>10</b>	<b>12</b>	
	<b>Nafarroa</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	
	<b>Bartzelona</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	
<b>Pribatua, guztira</b>		<b>85</b>	<b>1.791</b>	
<b>EAE<sup>2</sup></b>		<b>57</b>	<b>1.386</b>	
<b>Argitaletxe pribatuak</b>	<b>Araba</b>	<b>2</b>	<b>12</b>	
	<b>Gipuzkoa</b>	<b>27</b>	<b>669</b>	
	<b>Bizkaia</b>	<b>28</b>	<b>705</b>	
	<b>Nafarroa</b>	<b>5</b>	<b>56</b>	<b>Pamiela</b>
				<b>Txalaparta Argitaletxea</b>
				<b>Igela Argitaletxea</b>
				<b>Cenlit</b>
	<b>Bartzelona</b>	<b>7</b>	<b>23</b>	<b>Planeta</b>
				<b>Vicens Vives</b>
	<b>Madril</b>	<b>9</b>	<b>292</b>	<b>Anaya</b>
				<b>Susaeta</b>
				<b>Bruño</b>
	<b>Pontevedra</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	
<b>Badajoz</b>	<b>1</b>	<b>10</b>		
<b>Valentzia</b>	<b>2</b>	<b>12</b>		
<b>Beste batzuk</b>	<b>3</b>	<b>10</b>		
<b>Publikoak, guztira</b>		<b>12</b>	<b>125</b>	
<b>Hezkuntza erakunde publikoak</b>		<b>3</b>	<b>41</b>	
	<b>Bizkaia</b>	<b>3</b>	<b>41</b>	<b>E. Herriko Unibertsitatea</b>
				<b>Euskaltzaindia</b>
<b>Administrazio autonomikoko eta estatuko toki administrazioko erakunde ofizialak</b>		<b>9</b>	<b>84</b>	
	<b>Araba</b>	<b>1</b>	<b>64</b>	<b>Euskal Herriko Argitalpen Zerbitzu Zentrala</b>
	<b>Gipuzkoa</b>	<b>5</b>	<b>11</b>	
	<b>Bizkaia</b>	<b>2</b>	<b>6</b>	
	<b>Nafarroa</b>	<b>1</b>	<b>3</b>	
<b>Ipar EH</b>		<b>6</b>	<b>26</b>	

<sup>2</sup> EAEko argitaletxe pribatuen 1.386 izenburuei Nafarroako bi argitaletxeren 40 izenburu eta hezkuntzako 2 erakunde publikoren 37 izenburu gehitu behar zaizkie; izan ere, horien datuak EAEko argitalpenari buruzko txostenean daude jasota. Batura horretatik ateratzen dira EAEko **1.463 izenburuak**, eta hori izango da hemendik aurrera txostenean aipatuko den kopurua.

Nafarroak 56 ken 40 izenburu izango ditu, hau da, **16 izenburu**. Hezkuntzako erakunde publikoek 41 ken 37 izenburu izango dituzte, hau da, 4 izenburu. Hortaz, argitalpen publikoak **88 izenburu** izango ditu guztira.

## ARGITALPEN PRIBATUA EUSKARAZ

### ARGITALPEN PRODUKZIOA

2012. urtean, Euskadiko, beste erkidego batzuetako eta Ipar Euskal Herriko argitaletxe pribatuek 1.854 izenburu<sup>3</sup> kaleratu zituzten euskaraz. Kopuru hori aurreko urtekoa baino % 2,1 txikiagoa izan zen, eta 2010ekoa baino 1,3 txikiagoa. Argitaratutako izenburuen % 78,9 EAEko argitaletxe pribatuek eman zituzten argitara; % 0,9, Nafarroako Foru Erkidegokoek; % 1,4, Ipar Euskal Herrikoek, eta % 18,8, beste autonomia erkidego batzuetakoek.

Argitaratutako izenburuen kopuruak eremu guztietan egin zuen behera 2011tik 2012ra: EAEn, % 1,5; beste autonomia erkidego batzuetan, % 3,6, eta Ipar Euskal Herrian, % 3,7. Beherakadarik handiena NFE<sup>4</sup> izan zen (- % 17,9).

Argitaletxe horiek izenburu horien 3.271.588 ale argitaratu zituzten, guztira, 2012an. Kopuru hori 2011koa baino % 2,4 txikiagoa zen, eta 2010ekoa baino % 9,2 txikiagoa. Aleen % 90,8 EAEn ekoitzi ziren.

Batez besteko argitaraldia izenburuko 1.764 alekoa izan zen, 2011koa baino 5 ale txikiagoa izenburuko, eta 2010ekoa baino 152 ale txikiagoa. Argitaratutako izenburuen kopuruak eta aleen kopuruak ia proportzio berean egin zuten behera, eta horregatik mantendu zen bere horretan batez besteko argitaraldia.

Taula hauetan, euskarazko argitalpenari buruzko datu orokorrak daude adierazita, baita argitaratutako izenburuek, argitaratutako aleek eta batez besteko argitaraldiak 2008az geroztik izandako bilakaera ere.

#### 4. TAULA.- EUSKARAZKO ARGITALPENARI BURUZKO DATU OROKORRAK

	Argitaratutako izenburuak	%	Argitaratutako aleak	%	Batez besteko argitaraldia
<b>Guztira</b>	<b>1.854</b>	<b>100,0</b>	<b>3.271.588</b>	<b>100,0</b>	<b>1.764</b>
<b>EAE</b>	1.463	78,9	2.968.526	90,8	2.028
<b>NFE</b>	16	0,9	10.211	0,3	637
<b>Ipar EH</b>	26	1,4	27.326	0,8	1.051
<b>Beste AE batzuk</b>	349	18,8	265.524	8,1	761

<sup>3</sup> Euskal Herriko Unibertsitatekoak eta Euskaltzaindikoak barne.

<sup>4</sup> NFEko bi argitaletxeren datuak EAEn sartuta daude, Euskadiko Editoreen Elkarteko kide direlako.

**5. TAULA.- ARGITARATUTAKO ALEEN, ARGITARATUTAKO IZENBURUEN ETA BATEZ BESTEKO ARGITARALDIAREN BILAKAERA (2008-2012). 2011. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA**

	Argitaratutako izenburuak					
	2008	2009	2010	2011	2012	aldakuntza (%)
<b>Guztira</b>	<b>1.937</b>	<b>1.882</b>	<b>1.879</b>	<b>1.895</b>	<b>1.854</b>	<b>-2,1</b>
<b>EAE</b>	1.563	1.561	1.476	1.486	<b>1.463</b>	-1,5
<b>NFE</b>	19	20	18	20	<b>16</b>	-17,9
<b>Ipar EH</b>	36	27	29	27	<b>26</b>	-3,7
<b>Beste AE batzuk</b>	319	274	356	362	<b>349</b>	-3,6

	Argitaratutako aleak (x 1.000)					
	2008	2009	2010	2011	2012	aldakuntza (%)
<b>Guztira</b>	<b>4.041</b>	<b>3.762</b>	<b>3.601</b>	<b>3.351</b>	<b>3.272</b>	<b>-2,4</b>
<b>EAE</b>	3.596	3.354	3.176	3.046	<b>2.969</b>	-2,5
<b>NFE</b>	22	21	20	11	<b>10</b>	-5,9
<b>Ipar EH</b>	26	38	33	30	<b>27</b>	-8,6
<b>Beste AE batzuk</b>	397	350	373	265	<b>266</b>	0,3

	Batez besteko argitaraldia					
	2008	2009	2010	2011	2012	Aldea*
<b>Guztira</b>	<b>2.086</b>	<b>1.999</b>	<b>1.916</b>	<b>1.769</b>	<b>1.764</b>	<b>-5</b>
<b>EAE</b>	2.301	2.148	2.152	2.050	<b>2.028</b>	-21
<b>NFE</b>	1.135	1.055	1.119	556	<b>637</b>	82
<b>Ipar EH</b>	721	1.389	1.107	1.107	<b>1.051</b>	-56
<b>Beste AE batzuk</b>	1.246	1.278	1.047	732	<b>761</b>	29

\*Ehunekotan

## Euskaraz argitaratutako izenburuen kopuru tartekak

2012an euskaraz argitaratu zuten argialetxe pribatu guztien (103 argialetxe) % 69,9k 1-9 izenburu argitaratu zituzten euskaraz. Argialetxeen % 25,2k izenburu bakarria argitaratu zuten euskaraz; % 30,1ek, 2-4 izenburu; % 14,6k, 5-9 izenburu, eta % 30,1ek, 10 izenburu edo gehiago.

Argialetxe kopuruak aintzat hartuta, beraz, 2011n 90 argialetxek argitaratu zituzten 1-9 izenburu euskaraz, eta 2012an, berriz, 73k. 10 izenburu edo gehiago 31 argialetxek argitaratu zituzten 2011n, eta 30ek, 2012an. Hortaz, 2012. urtean, euskaraz izenburu gutxien argitaratzen zuten argialetxeen kopuruak izan zuen beherakadarik handiena, batez ere izenburu bakarria argitaratu zutenenak, 42 izatetik 26 izatera pasatu baitziren.

### 6. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUAK

	Guztira (%)	Argialetxe kopurua, guztira	Argialetxe pribatuak				Argialetxe publikoak
			EAE <sup>5</sup>	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk	
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>103</b>	<b>61</b>	<b>3</b>	<b>6</b>	<b>23</b>	<b>10</b>
1 izenburu	25,2	26	11	0	0	9	6
2-4 izenburu	30,1	31	16	1	6	6	2
5-9 izenburu	14,6	16	10	1	0	3	2
10-49 izenburu	19,4	19	15	1	0	3	1
50 izenburu edo gehiago	10,7	11	9	0	0	2	0

<sup>5</sup> Gogoan izan EAeko datuen baitan bi hezkuntza erakunde publiko daudela.

## Euskarazko argitalpenak guztizkoarekin alderatuta

Argitaletxe pribatu guztien (87, Ipar Euskal Herrikoak kenduta) % 31,0k euskaraz argitaratu zituzten beren izenburuen % 75 baino gehiago; hain zuzen ere, 27 argitaletxek. Horietatik 26 EAEkoak ziren, eta bakar bat NFEkoa.

Argitaletxe pribatuetatik 15ek (14 EAEkoak) euskaraz argitaratu zituzten lanen % 50 eta % 75 artean. 13 enpresak lanen % 25 eta % 49 bitarte argitaratu zituzten euskaraz (12 ziren EAEkoak). 41 argitaletxe pribatuk, berriz, lanen % 25 baino gutxiago ekoitzi zituzten euskaraz (9 EAEkoak eta 23 beste autonomia erkidego batzuetakoak).


Azterlanean jasotako 10 erakunde publikoei dagokienez, 6k euskaraz argitaratu zituzten beren izenburuen % 75etik gora.

### 7. TAULA.- ARGITALETXE KOPURUA, GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUEN EHUNEKOAREN ARABERA. IPAR EUSKAL HERRIA KONTUAN HARTU GABE

Argitaletxe kopurua		Guztizko orokorra	Argitaletxe pribatuak*				EP
			Pribatuak, guztira	EAE	NFE	Beste AE batzuk	
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>97</b>	<b>87</b>	<b>61</b>	<b>3</b>	<b>23</b>	<b>10</b>
% 25 baino gutxiago	35,1	34	32	9	0	23	2
% 25 - % 49	14,4	14	13	12	1	0	1
% 50 - % 75	16,5	16	15	14	1	0	1
% 75 baino gehiago	34,0	33	27	26	1	0	6

\* Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe

### 2. GRAFIKOA.- ARGITALETXEEN EHUNEKOAK, GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA EUSKARAZ ARGITARATUTAKO LANEN ARABERA



## Argitalpen produkzioa, sailen arabera

Atal honetan, euskarazko argitalpen produkzioari buruzko datuak emango ditugu (argitaratutako izenburuak, argitaratutako aleak, batez besteko argitaraldia eta katalogoko izenburu biziak), sailen arabera. Honako hauek dira sail bakoitzaren edukiak:

- Literatura: eleberria, poesia eta antzerkia, bestelako literatura.
- Haur eta gazte literatura: haurrentzako eta gazteentzako literatura eta argitalpenak.
- Unibertsitateaz kanpoko testuak: epigrafe honetan sartzen dira Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH), Batxilergoko eta Lanbide Heziketako (LH) testuak eta liburu nahiz material osagarriak.
- Testu zientifiko teknikoak eta unibertsitate testuak: zientzia hutsak, medikuntza, teknika eta zientzia aplikatuak, enpresa ekonomia. Sakontasun eta zorrotasun mailaren arabera, eta norentzat egina den kontuan hartuta: unibertsitateko ikasleak, teknikari adituak eta antzekoak.
- Giza eta gizarte zientziei buruzko testuak: hainbat diziplina hartzen ditu, soziologia, ekonomia, zuzenbidea, psikologia, erlijioa eta geografia eta historia, besteak beste.
- Liburu praktikoak: etxeko ekonomiari buruzko liburuak, sukaldaritzari buruzkoak, bidaia gidak, mapak, etab.
- Dibulgazioa orokorra: sail honetan sartzen dira Dibulgazioko beste liburu batzuk saileko lanak (arte ederrak, musika, kirolak, etab.).
- Hiztegiak eta entziklopediak: ale bakarreko edo bat baino gehiagoko hiztegiak sartzen dira, aurreko edizioan bezala.

Hainbat atal daude izenburu gutxi biltzen dituztenak, eta horregatik, elkartu egin ditugu, taulen eta grafikoen diseinua errazteko:

- Testu zientifikoak eta gizarte zientziei buruzkoak: Testu zientifikoak eta teknikoak eta unibertsitate testuak saila eta Giza eta gizarte zientziei buruzko testuak saila elkartu ditugu.
- Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak: Liburu praktikoak eta Dibulgazio orokorra sailak barne hartzen ditu.
- Beste gai batzuk: Komikiak, Hiztegiak eta entziklopediak eta Bestelakoak sailak elkartu ditugu.



## Euskaraz argitaratutako izenburuak, sailen arabera

Dagoeneko aipatu dugunez, argialetxe pribatuek euskarazko 1.854 izenburu argitaratu zituzten, guztira, 2012an.

Unibertsitateaz kanpoko testuak sailak lortu zuen argialetxe pribatuek euskaraz argitara emandako izenburuen ehuneko handiena, zenbateko osoaren ia erdia (% 47,7), hain zuzen. Bigarren ehuneko handiena, % 26,4, Haur eta gazte literatura sailarena izan zen. Bi sail horiek euskaraz argitaratutako izenburu guztien ia hiru laurden batu zituzten, hots, % 74,1. EAEko edizioan kopuru hori % 70,0ekoa izan zen.

Beste autonomia erkidego batzuetako euskarazko argitalpena izenburu guztien % 18,8 izan zen. Sailen arabera, Unibertsitateaz kanpoko testuak eta Haur eta gazte literatura sailtakoak izan ziren beste autonomia erkidego batzuek argitaratutako lanik gehienak, % 61,6 eta % 33,1, hurrenez hurren.

Unibertsitateaz kanpoko testuak sailean euskaraz argitaratutako izenburu guztien % 24,3 beste autonomia erkidego batzuek argitaratu zituzten; Haur eta gazte literatura sailaren kasuan, kopuru hori % 23,6koa izan zen.

### 8.. TAULA.- EUSKARAZKO IZENBURUEN ARGITALPENA, SAILEN ARABERA, 2012AN. ARGIALETXE PRIBATUAK


	Guztira	EAE	NFE*	Ipar EH	Beste AE batzuk
<b>Guztira (balio absolutuak)</b>	<b>1.854</b>	<b>1.463</b>	<b>16</b>	<b>26</b>	<b>349</b>
Literatura	250	231	6	13	--
<i>Eleberria</i>	182	167	3	12	--
<i>Poesia, antzerkia</i>	29	27	1	1	--
<i>Bestelako literatura</i>	39	37	2	--	--
Haur eta gazte literatura	489	365	3	6	116
Unibertsitateaz kanpoko testuak	885	659	5	6	215
<i>Haur Hezkuntza</i>	133	118	--	--	15
<i>Lehen Hezkuntza</i>	306	224	--	6	76
<i>DBH</i>	295	187	--	--	108
<i>Batzilergoa</i>	38	22	2	--	14
<i>LH</i>	4	2	--	--	2
<i>Liburu eta material osagarriak</i>	108	105	3	--	--
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	112	102	--	--	10
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	39	37	2	--	--
Beste gai batzuk	80	70	--	1	9

\*NFEko bi argialetxeren datuak EAEko datuetan sartuta daude.

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
Guztira (% bertikalak)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Literatura	13,5	15,8	36,2	50,0	--
<i>Eleberria</i>	9,8	11,4	19,4	46,2	--
<i>Poesia, antzerkia</i>	1,6	1,8	7,5	3,8	--
<i>Bestelako literatura</i>	2,1	2,6	9,4	--	--
Haur eta gazte literatura	26,4	24,9	18,0	23,1	33,1
Unibertsitateaz kanpoko testuak	47,7	45,0	30,6	23,1	61,6
<i>Haur Hezkuntza</i>	7,2	8,1	--	--	4,3
<i>Lehen Hezkuntza</i>	16,5	15,3	--	23,1	21,7
<i>DBH</i>	15,9	12,8	--	--	31,0
<i>Batzilergoa</i>	2,1	1,5	12,5	--	4,0
<i>LH</i>	0,2	0,1	0,0	--	-0,6
<i>Liburu eta material osagarriak</i>	5,8	7,2	18,7	--	--
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	6,0	6,9	--	--	2,9
Liburu praktikokoak eta dibulgaziozkoak	2,1	2,5	15,2	--	--
Beste gai batzuk	4,3	4,8	--	3,8	2,5

Euskaraz argitaratutako izenburuen % 13,5 lortuta, Literatura saila izan zen hirugarren sail garrantzitsuena.


Literaturan argitaratutako izenburuen % 72,9 eleberriak izan ziren; % 11,6, poesia eta antzerkia, eta % 15,6, bestelako literatura (% 20,4 2011n eta % 13,9 2010ean).



2012an euskaraz argitara emandako izenburuen % 78,9 EAEko argitaletxe pribatuek plazaratu zituzten. Argitaletxe horiek batez besteko ehuneko hori gainditu zuten sail nagusi guztietan Unibertsitateaz kanpoko testuak ( % 74,5) eta Haur eta gazte literatura (% 74,6) sailetan izan ezik. Euskarazko izenburu guztien % 18,8 beste autonomia erkidego batzuetan argitaratu zituzten, eta kopuru hori Unibertsitateaz kanpoko testuak (% 24,3) eta Haur eta gazte literatura (%23,6) sailek gainditu zuten, hain justu.

**3. GRAFIKOA.- SAIL BAKOITZEKO EUSKARAZKO IZENBURUEN BANAKETA, ARGITALETXE PRIBATUETAN, JATORRIAREN ARABERA (%-TAN)**

Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
100,0	78,9	0,9	1,4	18,8



Argitaratutako izenburuen kopurua 2011koa baino % 2,1 txikiagoa izan zen. Sailak aintzat hartuta, Haur eta gazte literatura eta Beste gai batzuk sailek egin zuten behera, % 8,5 eta % 13,9, hurrenez hurren. Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak sailean, berriz, % 36,3 egin zuen gora izenburuen kopuruak. Gainerako sailetan ez zen apenas aldaketarik izan.

**9. TAULA. IZENBURUAK, SAILEN ARABERA. 2008-2012 BILAKAERA. 2011. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA**

Argitaratutako izenburuak	2008	2009	2010	2011	2012	aldakuntza (%)
<b>Guztira</b>	<b>1.937</b>	<b>1.882</b>	<b>1.879</b>	<b>1.895</b>	<b>1.854</b>	<b>-2,1</b>
Literatura	274	251	278	251	<b>250</b>	-0,3
Haur eta gazte literatura	474	499	532	534	<b>489</b>	-8,5
Unibertsitateaz kanpoko testuak	1.013	953	834	896	<b>885</b>	-1,2
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	96	90	62	82	<b>112</b>	36,3
Liburuko praktikoak eta dibulgaziozkoak	42	45	112	39	<b>39</b>	0,0
Beste gai batzuk	39	45	61	92	<b>80</b>	-13,9

% bertikalak	2008	2009	2010	2011	2012	Aldea*
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	
Literatura	14,1	13,3	14,8	13,2	<b>13,5</b>	0,3
Haur eta gazte literatura	24,5	26,5	28,3	28,2	<b>26,4</b>	-1,8
Unibertsitateaz kanpoko testuak	52,3	50,6	44,4	47,3	<b>47,7</b>	0,4
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	5,0	4,8	3,3	4,3	<b>6,0</b>	1,7
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	2,2	2,4	6,0	2,0	<b>2,1</b>	0,1
Beste gai batzuk	2,0	2,4	3,3	4,9	<b>4,3</b>	-0,6

\*Aldea ehunekotan

## Euskaraz argitaratutako aleak, sailen arabera

Argitaletxe pribatuek argitaratutako 3.271.588 aleetatik gehienak, % 59,8, Unibertsitateaz kanpoko testuak sailekoak izan ziren. Bigarren sail garrantzitsuena Haur eta gazte literatura izan zen, zenbateko osoaren % 22,7 lortuta. Bi sail horietako lanek batu zuten euskaraz argitaratutako ale guztien % 82,5. Batura hori % 81,5koa izan zen EAEn argitaratutako aleen kasuan, eta % 96,1koa, beste autonomia erkidego batzuetan argitaratutako aleen kasuan.


### 10. TAULA.- 2012AN EUSKARAZ EKOITZITAKO ALEAK, SAILEN ARABERA (MILAKOTAN). ARGITALETXE PRIBATUAK

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
<b>Guztira (balio absolutuak) (X 1.000)</b>	<b>3.272</b>	<b>2.969</b>	<b>10</b>	<b>27</b>	<b>266</b>
Literatura	328	315	5	8	0
<i>Eleberria</i>	242	231	4	7	0
<i>Poesia, antzerkia</i>	25	24	0	1	0
<i>Bestelako literatura</i>	61	60	1	0	0
Haur eta gazte literatura	743	659	3	9	72
Unibertsitateaz kanpoko testuak	1.956	1.762	2	9	183
<i>Haur Hezkuntza</i>	375	367	0	0	8
<i>Lehen Hezkuntza</i>	759	637	0	9	114
<i>DBH</i>	487	427	0	0	60
<i>Batzilergoa</i>	44	44	1	0	0
<i>LH</i>	3	2	0	0	1
<i>Liburu eta material osagarriak</i>	287	286	1	0	0
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	85	80	0	0	5
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	64	63	1	0	0
Beste gai batzuk	96	90	0	1	5

	<b>Guztira</b>	Euskadi	Nafarroa	Ipar EH	Beste AE batzuk
<b>Guztira (% bertikalak)</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Literatura	10,0	10,6	46,1	30,0	0,0
<i>Eleberria</i>	7,4	7,8	34,5	27,0	0,0
<i>Poesia, antzerkia</i>	0,8	0,8	2,6	3,0	0,0
<i>Bestelako literatura</i>	1,9	2,0	9,0	0,0	0,0
Haur eta gazte literatura	22,7	22,2	29,0	34,3	27,3
Unibertsitateaz kanpoko testuak	59,8	59,4	18,3	32,0	68,9
<i>Haur Hezkuntza</i>	11,5	12,4	0,0	0,0	3,1
<i>Lehen Hezkuntza</i>	23,2	21,4	0,0	32,0	43,0
<i>DBH</i>	14,9	14,4	0,0	0,0	22,7
<i>Batzilergoa</i>	1,4	1,5	8,8	0,0	0,0
<i>LH</i>	0,1	0,1	0,0	0,0	0,0
<i>Liburu eta material osagarriak</i>	8,8	9,6	9,5	0,0	0,0
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	2,6	2,7	0,0	0,0	2,0
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	2,0	2,1	6,7	0,0	0,0
Beste gai batzuk	2,9	3,0	0,0	3,7	1,9

Argitaratutako aleen ehunekoari dagokionez, hirugarren sail garrantzitsuen Literatura izan zen, 2012an euskaraz ekoiztutako aleen % 10,0 izan baitziren sail horretakoak.



Literatura sailean, aleen % 73,7 eleberriak izan ziren; % 7,6, poesia eta antzerkia, eta % 18,6, bestelako literatura.



2012an euskaraz argitaratutako aleen % 90,8 EAEko enpresek plazaratu zituzten. Enpresa horiek ehuneko handiagoak lortu zituzten sail guztietan, bi hauetan izan ezik: Haur eta gazte literatura (ale guztien % 88,6 argitaratu zituzten EAEn) eta Unibertsitateaz kanpoko testuak (ale guztien % 90,1 argitaratu zituzten EAEn). Beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxeek ale guztien % 8,1 argitaratu zituzten, eta ehuneko hori gainditu egin zuten Haur eta gazte literatura (% 9,7) eta Unibertsitateaz kanpoko testuak (% 9,4) sailetan.

**4. GRAFIKOA.- SAIL BAKOITZEAN EUSKARAZ ARGITARATUTAKO ALEAK, ARGITALETXE PRIBATUETAN, JATORRIAREN ARABERA (%-TAN)**

Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
100,0	90,8	0,3	0,8	8,1



Euskaraz argitaratutako aleen kopuruak % 2,4 egin zuen behera 2011tik. Haur eta gazte literatura sailak izan zuen beherakadarik handiena, % 12,5koa. Literaturan ere % 1,1 ale gutxiago argitaratu zituzten euskaraz. Testu zientifiko teknikoak eta gizarte zientzietakoak sailean eta Unibertsitateaz kanpoko sailean argitaratutako aleen kopuruak, berriz, handitu egin ziren, % 7,6 eta % 2,1, hurrenez hurren.

**II. TAULA.- ALEAK, SAILEN ARABERA. 2008-2012 BILAKAERA. 2011. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA**

Argitaratutako aleak (x 1.000)	2008	2009	2010	2011	2012	aldakuntza (%)
<b>Guztira</b>	<b>4.041</b>	<b>3.762</b>	<b>3.601</b>	<b>3.351</b>	<b>3.272</b>	<b>-2,4</b>
Literatura	367	288	294	332	<b>328</b>	-1,1
Haur eta gazte literatura	978	958	949	849	<b>743</b>	-12,5
Unibertsitateaz kanpoko testuak	2.370	2.239	2.064	1.915	<b>1.956</b>	2,1
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	124	108	56	79	<b>85</b>	7,7
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	129	98	143	76	<b>64</b>	-15,9
Beste gai batzuk	72	71	96	100	<b>96</b>	-4,2

% bertikalak	2008	2009	2010	2011	2012	Aldea*
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	
Literatura	9,1	7,6	8,2	9,9	<b>10,0</b>	0,1
Haur eta gazte literatura	24,2	25,5	26,4	25,3	<b>22,7</b>	-2,6
Unibertsitateaz kanpoko testuak	58,6	59,5	57,3	57,2	<b>59,8</b>	2,6
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	3,1	2,9	1,5	2,4	<b>2,6</b>	0,2
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	3,2	2,6	4,0	2,3	<b>2,0</b>	-0,3
Beste gai batzuk	1,8	1,9	2,7	3,0	<b>2,9</b>	0,1

\*Aldea ehunekotan



## Batez besteko argitaraldia euskaraz, sailen arabera

Batez besteko euskarazko argitaraldia izenburuko 1.764 alekoa izan zen 2012an. Jatorriaren arabera, batez besteko argitaraldiak hauek izan ziren: 2.028 alekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko argitaletxe pribatuetan; 637 alekoa, Nafarroako Foru Erkidegoko argitaletxe pribatuetan (behera egin zuen 2011. urtearekin alderatuta); 1.051 alekoa, Ipar Euskal Herriko argitaletxeetan, eta 761 alekoa, beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxeetan (behera egin zuen 2011. urtearekin alderatuta).

Batez besteko argitaraldi handiena Unibertsitateaz kanpoko testuak sailean izan zen: 2.210 ale izenburuko.

### 12. TAULA.- BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA EUSKARAZ, SAILEN ARABERA, 2012AN. ARGITALETXE PRIBATUAK

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
<b>Batez besteko argitaraldia</b>	<b>1.764</b>	<b>2.028</b>	<b>637</b>	<b>1.051</b>	<b>761</b>
Literatura	1.310	1.361	811	631	--
<i>Eleberria</i>	1.326	1.381	1.135	615	--
<i>Poesia, antzerkia</i>	864	895	224	820	--
<i>Bestelako literatura</i>	1.569	1.607	613	--	--
Haur eta gazte literatura	1.519	1.805	1.027	1.564	626
Unibertsitateaz kanpoko testuak	2.210	2.674	381	1.457	851
<i>Haur Hezkuntza</i>	2.820	3.109	--	--	547
<i>Lehen Hezkuntza</i>	2.484	2.846	--	1.457	1.500
<i>DBH</i>	1.648	2.280	--	--	555
<i>Batzilergoa</i>	1.157	1.955	448	--	0
<i>LH</i>	751	990	--	--	500
<i>Liburu eta material osagarriak</i>	2.653	2.707	324	--	--
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	762	785	--	--	532
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	1.643	1.734	278	--	--
Beste gai batzuk	1.204	1.282	--	1.000	589

Hurrengo taulan, euskarazko batez besteko argitaraldiak 2008az geroztik izandako bilakaera eta 2011. urtearekiko aldea daude jasota. Batez besteko argitaraldi osoak 2008az geroztiko beheranzko joera etengabeari eutsi zion. Hala ere, 2012ko beherakada aurreko ekitaldietakoa baino txikiagoa izan zen.

Sailen arabera, 2011tik 2012ra sail hauetako batez besteko argitaraldiek izan zituzten beherakadarik handienak: Haur eta gazte literatura (70 ale gutxiago izenburuko), Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak (203 ale gutxiago izenburuko) eta Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak (315 ale gutxiago izenburuko). 2008. urteaz geroztik, batez besteko argitaraldiak izenburuko 500 ale baino gehiago egin zuen behera sail gehienetan, bi hauetan izan ezik: Literatura (beherakada txikia) eta Unibertsitateaz kanpoko testuak (129 ale gutxiago izenburuko).

**13. TAULA.- BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA, SAILEN ARABERA. BILAKAERA. 2011. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA**

	2008	2009	2010	2011	2012	Aldea
<b>Guztira</b>	<b>2.086</b>	<b>1.999</b>	<b>1.916</b>	<b>1.769</b>	<b>1.764</b>	<b>-5</b>
Literatura	1.339	1.148	1.058	1.322	<b>1.310</b>	-12
Haur eta gazte literatura	2.065	1.919	1.784	1.589	<b>1.519</b>	-70
Unibertsitateaz kanpoko testuak	2.339	2.350	2.475	2.138	<b>2.210</b>	72
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	1.298	1.206	899	965	<b>762</b>	-203
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	3.116	2.193	1.272	1.957	<b>1.643</b>	-315
Beste gai batzuk	1.862	1.580	1.540	1.080	<b>1.204</b>	123

## KATALOGOKO IZENBURUAK

Azterketan aintzat hartutako argitaletxe pribatuek euskarazko 13.046 izenburu zituzten katalogoan. Horien % 79,6 EAEn argitaratu zituzten; % 1,9, Nafarroako Foru Erkidegoan; % 2,0, Ipar Euskal Herrian, eta % 16,5, beste autonomia erkidego batzuetan.

### 14. TAULA.- KATALOGOKO IZENBURUAK EUSKARAZ, 2012AN. ARGITALETXE PRIBATUAK

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
<b>Guztira</b>	<b>13.046</b>	10.387	244	259	2.156
% horizontalak	<b>100,0</b>	79,6	1,9	2,0	16,5
Argitaratutako izenburuak	<b>1.852</b>	1.463	16	26	347
Katalogoko izenburuak / argitaratutako izenburuak	<b>7,0</b>	7,1	15,2	10,0	6,2

2012n, katalogoko izenburu guztien eta euskaraz argitaratutako izenburuen arteko erlazioa 7 izenburu bizikoa izan zen argitaratutako izenburu bakoitzeko, zenbateko osoari dagokionez. Eremuen arabera, adierazle hori 7,1ekoa izan zen EAEko argitaletxe pribatuentzat; 15,2koa, Nafarroako Foru Erkidegoko argitaletxeentzat; 10,0ekoa, Ipar Euskal Herriko argitaletxeentzat, eta 6,2koa, beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxeentzat.

### Katalogoko izenburuak, sailen arabera

Unibertsitateaz kanpoko testuak eta Haur eta gazte literatura sailek izan zituzten ehuneko handienak euskarazko katalogo osoan, % 35,6 eta % 30,5, hurrenez hurren. Bi sailen artean, euskarazko katalogoaren % 66,1 batu zuten.

Bi sail horiek euskarazko katalogoaren guztizkoaren barruan izan zuten ehunekoa askoz handiagoa izan zen beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxeen kasuan, katalogoaren % 93,0 hartu baitzuten. Gainerako eremuetako argitaletxeei dagokionez, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian oso ehuneko handiak lortu zituzten Literatura saileko izenburuek (% 67,4 eta % 49,8, hurrenez hurren).

15. TAULA.- KATALOGOKO EUSKARAZKO IZENBURUAK, SAILEN ARABERA, 2012AN. ARGIALETXE PRIBATUAK

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
<b>Guztira (balio absolutuak)</b>	<b>13.046</b>	<b>10.387</b>	<b>244</b>	<b>259</b>	<b>2.156</b>
Literatura	2.158	1.800	164	129	65
<i>Eleberria</i>	1.531	1.240	125	111	55
<i>Poesia, antzerkia</i>	264	249	4	8	3
<i>Bestelako literatura</i>	363	310	36	10	7
Haur eta gazte literatura	3.978	3.236	16	62	664
Unibertsitateaz kanpoko testuak	4.639	3.249	27	24	1.339
<i>Haur Hezkuntza</i>	719	547	--	8	164
<i>Lehen Hezkuntza</i>	1.705	971	1	16	717
<i>DBH</i>	1.259	927	1	--	330
<i>Batxilergoa</i>	316	256	3	--	57
<i>LH</i>	48	45	--	--	3
<i>Liburu eta material osagarriak</i>	594	504	22	--	68
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	1.455	1.387	6	--	62
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	403	350	31	13	10
Beste gai batzuk	412	366	--	31	15


	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
<b>Guztira (balio absolutuak)</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Literatura	16,5	17,3	67,4	49,8	3,0
<i>Eleberria</i>	11,7	11,9	51,1	42,9	2,6
<i>Poesia, antzerkia</i>	2,0	2,4	1,7	3,1	0,1
<i>Bestelako literatura</i>	2,8	3,0	14,7	3,9	0,3
Haur eta gazte literatura	30,5	31,1	6,7	23,9	30,8
Unibertsitateaz kanpoko testuak	35,6	31,3	11,1	9,3	62,1
<i>Haur Hezkuntza</i>	5,5	5,3	--	3,1	7,6
<i>Lehen Hezkuntza</i>	13,1	9,3	0,3	6,2	33,2
<i>DBH</i>	9,6	8,9	0,3	--	15,3
<i>Batxilergoa</i>	2,4	2,5	1,4	--	2,6
<i>LH</i>	0,4	0,4	--	--	0,1
<i>Liburu eta material osagarriak</i>	4,6	4,8	9,0	--	3,2
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	11,2	13,4	2,3	--	2,9
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	3,1	3,4	12,6	5,0	0,5
Beste gai batzuk	3,2	3,5	--	12,0	0,7

Argialetxe pribatuen katalogoetako euskarazko izenburuen % 79,6 EAEko enpresenak ziren.

Sailen arabera, EAEn argitaratutako izenburu biziaren ehunekoak guztizko kopurua baino handiagoa izan zen sail ia guztietan; Unibertsitateaz kanpoko testuak saila izan zen salbuespena (% 70,0). Sail horretan, beste autonomia erkidego batzuetako argialetxeei zegozkien izenburuen % 28,9.

**5. GRAFIKOA.- KATALOGOKO EUSKARAZKO IZENBURUEN BANAKETA SAILEN ARABERA, ARGIALETXE PRIBATUETAN. JATORRIAREN ARABERA (%-TAN)**

Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
100,0	79,6	1,9	2,0	16,5



Hurrengo taulan, izenburu biziak 2008az geroztik izandako bilakaera ikus daiteke, sailen arabera, baita 2011. urtearekiko aldakuntza ere.

2011. urtearekin alderatuta, izenburu biziak kopuru osoak % 4,5 egin zuen gora. Sailen arabera, nabarmen hazi zen Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak saileko izenburuen kopurua, % 22,8, baita Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak sailekoena ere, % 32,5. Literatura eta Haur eta gazte literatura sailen kasuan, katalogoko izenburuen kopuruak gora egin zuen, % 9,2 eta % 2,4, hurrenez hurren. Beste gai batzuk sailak, berriz, behera egin zuen % 18,4, eta Unibertsitateaz kanpoko testuak sailak ere zertxobait, % 1,2.

**16. TAULA. IZENBURU BIZIAK, SAILEN ARABERA. 2008-2012 BILAKAERA. 2011. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA**

Izenburu biziak	2008	2009	2010	2011	2012	aldakuntza (%)
<b>Guztira</b>	<b>11.795</b>	<b>12.031</b>	<b>12.396</b>	<b>12.489</b>	<b>13.046</b>	<b>4,5</b>
Literatura	1.895	1.980	2.099	1.977	<b>2.158</b>	9,2
Haur eta gazte literatura	3.512	3.572	3.911	3.887	<b>3.978</b>	2,4
Unibertsitateaz kanpoko testuak	4.728	4.909	4.765	4.694	<b>4.639</b>	-1,2
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	1.138	1.050	1.099	1.098	<b>1.455</b>	32,5
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	234	229	264	329	<b>403</b>	22,8
Beste gai batzuk	287	290	259	505	<b>412</b>	-18,4

% bertikalak	2008	2009	2010	2011	2012	Aldea
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	
Literatura	16,1	16,5	16,9	15,8	<b>16,5</b>	0,7
Haur eta gazte literatura	29,8	29,7	31,5	31,1	<b>30,5</b>	-0,6
Unibertsitateaz kanpoko testuak	40,1	40,8	38,5	37,6	<b>35,6</b>	-2,0
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	9,6	8,7	8,9	8,8	<b>11,2</b>	2,4
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	2,0	1,9	2,1	2,6	<b>3,1</b>	0,5
Beste gai batzuk	2,4	2,4	2,1	4,0	<b>3,2</b>	-0,9

\*Aldea ehunekotan

## MERKATURATZEA

### 2012KO FAKTURAZIOA

2012an, euskarazko liburuengatikoko fakturazioa 36.407.677 eurokoa izan zen, hau da, 2011n lortutakoa baino % 3,2 txikiagoa. Fakturazio guztiaren % 87,8 EAEko argitaletxe pribatuen merkataritza jarduerari zegokion.

#### 17. TAULA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2012AN. ARGITALETXE PRIBATUAK

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
<b>Guztira (milaka euro)</b>	<b>36.408</b>	<b>31.967</b>	<b>79</b>	<b>186</b>	<b>4.175</b>
% horizontalak	100,0	87,8	0,2	0,5	11,5

#### Fakturazioaren zenbatekoa, sailen arabera

Unibertsitateaz kanpoko testuak sailari zegokion 2012an euskarazko liburuak salduta lortutako fakturazio osoaren % 76,1. Salmenta gehien izan zituen bigarren saila Haur eta gazte literatura izan zen, zenbateko osoaren % 14,6 fakturatuta.


Argitaletxeen jatorriari erreparatuta, Unibertsitateaz kanpoko testuak sailaren fakturazioaren ehunekoak guztizkoa baino handiagoa izan zen beste autonomia erkidego batzuetan (% 84,4); aldiz, Haur eta gazte literatura sailak ehuneko handiagoa izan zuen Ipar Euskal Herrian (% 41,0).

#### 18. TAULA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2012AN, SAILEN ARABERA. ARGITALETXE PRIBATUAK

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
<b>Guztira (milaka euro)</b>	<b>36.408</b>	<b>31.967</b>	<b>79</b>	<b>186</b>	<b>4.175</b>
Literatura	<b>1.964</b>	1.872	47	45	--
<i>Eleberria</i>	<b>1.686</b>	1.614	35	37	--
<i>Poesia, antzerkia</i>	<b>102</b>	97	1	4	--
